



**2022KO AZAROAREN 21EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko azaroaren hogeita batean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu dira 2022ko azaroaren 7an egindako ohiko bilkurako eta azaroaren 14an egindako ezohiko bilkurako aktak. Azaroaren 7ko akta guztien artean aho batez onartu da. Azaroaren 14ko akta berriz, bilkura horretan izan ziren Amagoia Naldaiz, Aitor Altuna, Joxemai Ormazabal eta Maialen Amundarain zinegotzien artean aho batez onartu dute.

II.- UR-HORNIDURA EMATEKO ORDIZIAKO UDALAREKIN HITZARMENA.-

Lazkaoko ur saretik Ordiziako Oiangu gunera ematen den ur-horniduraren baldintzak finkatzeko asmoz, Lazkaoko Udalaren eta Ordiziako Udalaren artean sinatzea proposatzen den hitzarmena aurkeztu da batzordera. Honakoa dio:

"HAUEK BILDU DIRA

Alde batetik, Kepa Zubiarrain Erauskin, Lazkaoko alkatea, Lazkaoko Udalaren idazkaria den Idoia Garmendia Callejaz lagunduta, eta

Bestetik, Adur Ezenarro Agirre, Ordiziako Alkatea, Ordiziako Udalaren ordezkari den Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echavek lagunduta.

JARDUTEN DUTE

Kepa Zubiarrain Erauskin, alkate gisa, Lazkaoko Udalaren izen eta ordezkari izan.

Idoia Garmendia Callejak, baita ere karguaren xedez eta egintzaren fede emateko.

Adur Ezenarro Agirre, alkate gisa, Ordiziako Udalaren izen eta ordezkari izan.

AURREKARIAK

I.- Ordiziako Udalak, bere udalerriko Oianguren guneari ur-hornidura emateko beharra du, baina herriko ur-hornidura sarea ez da gune horretara iristen eta obra handia egin behar-ko litzateke Ordiziako ur-hornidura saretik Oianguren gunea urez hornitzeko.

II.- Lazkaoko Udalak duen ur-hornidura sarea, Lazkaomendi auzoan, Ordiziako udalerrira-ekin muga egiten duen punturaino iristen da, eta puntu horretatik gertu dago Oianguren gunea. Hori horrela izanda, Oianguren gunek behar duen ura hortik emateko moduan legoke.

III.- Lazkaoko Albitxu Behekoa baserriko hartunearen ondoren, Lazkaoko udalerrian eta Ordiziako udalerriko mugatik oso gertu, ur kontagailu bat jarrita dago (15161810 zenbakiduna), non Lazkaoko ur saretik Ordiziako udalerriko Oianguren gunera doan ur zenbatekoa neurtzen den.

IV.- Gaur egun eta aspaldi xamarretik, Lazkaoko Udalaren ur-hornidura saretik hornitzen da urez Ordiziako Oianguren gunea.

V.- Gaur egun Lazkaoko Udala arduratzen da Lazkaoko ur saretik Ordiziako Oiangun gunera doan uraren eta gune honetako ur-kontagailu guztien irakurketa eta kontagailu hauetako ur kontsumoen fakturazioa egiteaz. Bestalde Ordiziara doan ura neurtzen duen Lazkaoko ur-sareko ur-kontagailu orokorraren irakurketa egiten da eta honen irakurketa eta Oianguren gunean dauden ur-kontagailuen irakurketen baturaren artean aldea baldin badago, aldearen fakturazioa egiten zaio Ordiziako Udalari.

VI.- Gaur egun Lazkaoko ur-saretik Ordiziako Oianguren gunean kokatuta dauden lau (4) ur-kontagailu hornitzen dira eta guztien urteko gutxi gora-beherako ur-kontsumoa 1.500m³ da. Erantsitako planoan azaltzen dira ur-kontagailu hauen kokapena.

VII.- Bi udalek egoki ikusi dute funtzionatze modu hau aldatzea, herri bakoitzak bere eremuan jardun dezan, bai instalazioen mantentzean, bai ur-kontagailuak irakurtzean eta fakturatzean.

Hori horrela, komenigarri ikusi da Oianguren gunearen ur-hornidura Lazkaoko udalerriko ur-hornidura saretik ematea hitzarmen honetan jasotzea.

ARAUDIA

I.- Euskadiko Toki Erakundeen, apirilaren 7ko, 2/2016 Legearen 17.1.15, 17.1.3 eta 19.2 artikuluen baitan

II.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren, urriaren 1ekoa, 40/2015 Legearen 47 eta 49 artikuluen baitan

HARTURIKO AKORDIOAK

I.- Ordiziako Oianguren gunearen ur-hornikuntza Lazkaoko ur-saretik egingo da (bi udalen eskumen propioa modu elkartuan gauzatuko dute Euskadiko Toki Erakundeen 2/2016 Legearen 19.2 artikulua aintzat hartuta).

II.- Ur-hornikuntza gaur egun dauden ur-kontagailu puntuen kontsumoetarako hitzartzen da, eta hornikuntza puntu edo ur-kontagailu gehiagora zabaldu nahiko balitz, Ordiziako Udalak Lazkaoko Udalari horren berri eman beharko lioke, eta honek bere adostasuna eman beharko luke.



III.- Ordiziako Oianguren gunearen ur-hornikuntzaren kontsumoaren fakturazioa, Lazkaoko ur-sarean Albitxu Behekoaren hartunearen ondoren jarritako kontagailu orokorraren irakurketaren arabera egingo da.

IV.- Udal bakoitza arduratuko da bere udalerriko ur-hornidura instalazioak mantentzez (ez da bestelako konpromiso ekonomikorik hitzartzen).

V.- Administrazio arteko hitzarmen honen iraunaldia, sinatzen den egunetik hasita, 4 urtekoa izango da. Epea amaituta alderdien adostasunarekin beste 4 urtez luzatzeko aukera izango da.

VI.- Hitzarmen honen xedea egoki betetzearen jarraipena, zaintza eta kontrolerako mekanismoak Ordiziako eta Lazkaoko Udaletako Hirigintza sailak zehaztuko dituzte. Plantea dai-
tezken interpretazio eta betetze arazoak bi udaletako sail buruek ebatziko dituzte.

VII.- Hitzarmena aldatu ahal izango da sinatzaileek aho batez erabakita.

Eta adostasuna emanaz bi aldeek izenpetzen dute goian adierazitako leku eta datan."

Hitzarmen proposamen hau, idazketa akats bat zuzendu ondoren, onartzea erabaki da aho batez.

III.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 63 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERROGEITA BEDERATZI MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI euro ETA HOGEITA BEDERATZI zentimo (49.269,29 €)takoa onartzea erabaki da.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 22-11-09 zk.dun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea, azaroaren 9tik aurrera, astean 6 orduetan etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunen ekarpena zerbitzu kostuaren %100ekoa izango da.
- 22-11-06 zk.dun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea urriaren 29tik aurrera astean 5 orduetatik 6 ordura. Onuradunen ekarpena zerbitzu kostuaren %100ekoa izango da.
- 21-11-04 zk.dun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea astean 1,5 orduetatik 10 ordura, etxerako laguntza eta laguntza pertsonala emateko. Onuradunen ekarpena zerbitzu kostuaren %61ekoa izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 21-01-001 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea uztailetik irailera eta alokairu gastuetarako hilean 250 € ematea uztailetik irailera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.
- 22-01-013 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea urritik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 250 € ematea urritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.
- 22-01-015 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea urritik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 250 € ematea urritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.
- 22-01-016 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 37 € ematea urritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %80a da.
- 22-01-014 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea urritik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 250 € ematea urritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.
- 22-01-017 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea azarotik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 250 € ematea azarotik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura batzordearen proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako diru laguntza hauek onartu ditu:

- San Benito Ikastolari.-
Mantentze gastuetarako eta jarduerak aurrera eramateko izenpetutako hitzarmenen arabera diru laguntzen bigarren zatia orain ordaintzea. Orain ordainduko zaizkion zenbatekoak hauek dira: 11.500 € mantentze gastuetarako eta 17.000 € jardueretarako.

Ordainketak aurrekontuko partida hauetatik egingo dira:

- 1 481.02.326.00 partidatik, mantentze gastuetarako.
- 1 481.02.323.00 partidatik, jardueren gastuetarako

- Suthai taldeari.-
Taldea hau eta udalaren artean izenpetu den hitzarmenean talde honentzako, egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, aurreikusitako 3.000 €ko dirulaguntzaren %40, hau da, 1.200 € ematea.

Diru laguntza 2022ko aurrekontuaren 481.01.334.00 partidatik ordainduko da.



Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Euskara ikasten ari direnei.-

2022/2023 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Bi ikasle dira eta emango zaiena 546,71€ dira.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2022ko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

VII.- JARDUERA EKONOMIKOA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Jarduera ekonomikoko batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko urrian martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei hirugarren ordainketa egitea:

Merkataria	Zenbatekoa
GERRIKO SL	250 €
AMAIA GARRO Y OTROS CB (HIRUTXOKO)	75 €
IDOIA MATXINANDIARENA (A. BELEN)	475 €
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	445 €
ALBERTO SUKIA (SUKIA HARATEGIA)	955 €
BELEN ARANES FARMAZIA	225 €
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	1.000 €
PELLO BIDEGAIN (HARATEGIA)	845 €
AMAIA SORAZU (EKILORE)	450 €
IGONE ARAMENDI AMENABAR (XANU)	2.035 €
LIERNI FERNANDEZ (NARE)	280 €
EIDER LUNA (STYLO ILEAPAINDEGIA)	605 €
ARTANO ETA LORENA SL	2.165 €
XABIER BARANDIARAN (OSATU)	625 €
ROBERTO ELIZBURU (HARATEGIA)	225 €
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO)	140 €
ANA CRISTINA OLANO (ESTETIKA ZEN)	865 €
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	170 €
RAKEL OIARBIDE (EIRE ILEAP.)	370 €
NEKANE GARMENDIA...CB (GARAIZ)	2.970 €
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	895 €
OPILTZO SL (BIKA)	50 €
AINHOA OLARAN (FISIO ZENTRUA)	425 €
JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA)	120 €
GUZTIRA	16.660 €



Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik egingo da.

VIII.- LANDALURREKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa lurreko batzordetik baserritar ekoizleei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

- Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei zazpigarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

Baserritarra	Zenbatekoa
IZTUETA ELKARTEA SC	205 €
EUXEBIO GARMENDIA ALTUNA	1.080 €
GUZTIRA	1.285 €

Ordainketa aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik egingo da.

IX.- LAZKAOKO BENEDITARREN FUNDAZIOARI 2022. URTEKO AZKEN DIRU EKARPENA.-

Alkateak egindako proposamenaren bidez Lazkao Beneditarren Fundazioari honako ekarpena egitea planteatu da:

- Lazkaoko Udalaren 2022. urteko aurrekontuan aurreikusitako diru partidatik, emateko falta diren 1.000€ko ekarpena egitea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, Beneditarren Fundazioari proposatutako ekarpenak egitea onartu egin du aho batez.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita hamabost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



A blue ink handwritten signature, likely of the Mayor, is written in a cursive style.